

EUSKARAREN ETHORKIZUNA

Izkiriataile aleman batek, Heinz Klossek, Goethe Institutuaren bidez "Die Entwicklung neuer germanischer Kultursprachen von 1800 bis 1950" izeneko liburua argitaratu du. Liburu huntan germaniko hizkuntza batzu nola kultur alhorrerat ethorri diren expossatzen da, bai eta hizkuntza batek kultur bide bat bilhakatzekotz zeintzu kondizino ere bethetu behar dituen. Liburu hunen Aitzin-Solhasa batez ere hemen kommentatu nahi duket, euskararen ethorkizunari buruzko konsiderazino batzu athera baititzakegu.

Egileak Aitzin-Solhasean bere buruari galde egiten derauko ea hizkuntza berrien kultur-bideen bilhakatzea oraiko politikako tendentzien aurkha ekhitea ez-othe-lizatekeien, batez ere, egungo egunotan Europako eta Okzidenteko kulturaren salbatzekotz eta iraun-araztekotz ekhin eta ekhin behar baitugu. Dударik gabe, herri ttipi hauien hizkuntzek, kulturaren adiarazteko bideak bilhakutzen direlarik, Okzidenteko kultur-alhorra xehakatzena go dute; berhain hau Renaissanceko Zaroan hasi izan den tendentziaren iarraitzea baizen ezta, Orduan ere guztientzako kultur-bidearen atxikidura izan ziren grekera eta latina herri berriek utzi zituten eta hizkuntza nazionaletan izkiriitzen hasi ziren.

Batzuek xehakatze haur razino kontraren guraria lizatekeiela uste ukhan zuten. Halabainan, herri ttipien hizkuntzak kultur bideak izan ditezen nahi ukhan dutenek motivu guztiz razionaletatik beren ekhintzan ihardun izan dira. Herri ttipien aburuetan etzegoen soilik razoin-gabeko tendentziarik, mintzoara hauk zerabiltzaten iendeek, beuren seme alhabei ere ama-hizkuntzaren bidez kulturaren ardieste pleina eman nahi ukhan zeraueten, bertze herrien ama-hizkuntzen bidez irakasten zen anzora (1). Beraz Heinz Klossek erran duen bezala herri ttipi bati, Statuaren hizkuntza ofizial bakharra imosatzen zaion guztien demokratiaren arauen kontrako lege heien spirituaz aurkhako edukazino bat onhar arazten zaio. Haur kaltegitza antisozial bat baizen ezta. Hortakotz Kultur arazoetan herri ttipi baten hizkuntza erabilteko nahia ezta razoin-kontrako ekhitea.

Beraz, gezurrezkoa dateke, hizkuntzaren berriztatzeko eta berphiz-teko Kultur arazoetan erabilteko nahiaz ari den tendentzia bat, nazio-

nalismu zaharra eta zantarra dela erraiten, bazterrerat io nahi ukhaita. Nazionalismua gauza iragana eta tzarra izan dateke, batez ere nazionalismua nazionalfanatismua bilhakutzen denetan. Halarik ere evo-luzino haur konsidera badezagu, haren kausa eztago herri ttipien hiz-kuntzen kulturduntzean, bertze toki batetan dagoela ikhus dirokegu.

Bere Statuan bizi den herri ttipi bati eskubide naturalak ukhatzen derauzkion Nazione handiak errua du; kulpa du. Eta herri ttipiak berez Naturak emaiten derauzkion eskubideak reklamatzten baditu, **soilki** Statu-nazioneak bere hizkuntza rentzat eskubide natural bat be-zala zaintzen duena nahi du.

Hemen, beraz, herri handien, Statu-nazionen monopolismuaren, errua dago. Statu-nazione haukiek beren buruarentzat reklamatzten dutena eztiezakeete bertzei ukha (2).

HIZKUNTZA ALA DIALEKTUA

Konzeptu haukien bereizteko bideak differentak dira. Iakintza soilaren bidean gainti batzuetan *hizkuntza* izeneztatzen den "*hitz egiteko modalitatea*" gizakentearen konsiderazinoetan dialektu bat baizen ezta.

Hortakotz mintzoarak konsideratzten ditugunetan aspektu bi hauk bethi bururatu behar ditugu.

Mintzoara batzuek ezin ukha diteken personalitatea dute eta or-duan edonork mintzoara hauk *hizkuntzat*z onhartzen ditu. Nahiz eta hizkuntza haukietan literaturarik ezlegoken-arren, hunla izanen date-ke. Bertze batzuetan mintzatzeko modalitate batek hizkuntzaren konsi-derazioaren ardiestekotz, behaztopo batzu gaintitu behar ditu. Hunla bada, Sardiniako hizkuntza eta Okzitaniako hizkuntza linguistek hiz-kuntzak izenezta litzakete, berhain, laikoek dialektuak direla dioite. Holarik ere, mintzoara hauk, zenbait literatur ukhan dezatenean, bai eta herri guztiaren expressatzeko bidea bilhaka ditezenean, laikoek ere hizkuntzak direla erranen dute (3).

NOIZ ETA NOLA MINTZOARA BAT KULTUR ETA LI-TERATUR HIZKUNTZA BILHAKATZEN DEN.

Hizkuntza baten egokera soziologikoa hunla gora diteke.

1. Hizkuntza huntaz traktatzten diren alhorrak hedatu eta ioritu behar dira.
2. Hizkuntzaren bidez traktatzten diren alhorrak handigotu eta ioritu (hitzaldiak, predikuak, etc.).
3. Hizkuntzaren ekhitea radora eta televistarat hedatzen da.
4. Hizkuntzaren orthographia unifikatzten da.
5. Hizkuntzaren izkiriatu forma unifikatzten da. Geroagoz, behar bada, kulturdunen mintzatzeko forma ere unifikaturen da.

6. Hizkuntza gehiago eta gehiago erabili behar da biltzarretan, eta ez bakharririk hizkuntzaren motivutik fundatzen diren biltzarretan, bertze biltzarretan baizen. Geroagoz gazteriaren expressatzeko bidea bezala kultibaturen da (4).

Puntu hoietan, dudarik gabe, importantena lehena da. Halarik ere hizkuntza batek egiazko kultur-hizkuntza bilhaka ledintzat, literatur hizkuntzaren forma unifikatua ukhan behar du.

Hizkuntza baten kulturduntzea maila haukietan nabaritzen zaiku.

Maila guztien aitzinean jargon-egokera dagoke. Egokera huntan hizkuntza batetan soilik hizkirimiriak izkiriitzen dira, herriko kanauak bilhatzen eta izkiriitzen, bai eta proverbioak ere.

Egiazko kulturduntzearen mailak hauk dirateke:

1. Lyrika. Poesia humoristikoa (Theatru humoristikoa ere bai). Dialoguak, novelan eta radioan.

2. Theatrua. Prosaz izkiriatu kontuak (ez soilki dialoguak), koblak, kontuak, idylliak eta epos. Periodikoetan agerten dira artikulak, haur da themako prosaren hastapena.

3. Themat-izkribuen hedatzea: irakasteko liburuak eta ikhertze original ttipiak, batez ere iaiotherriaren thematei buruz. Guthunetan erabiltearen hastapenak. Radioan emanikako hitzaldi herrikoiak. Iakin-tzako grammatikak eta hiztegiak.

4. Iakintza guztien irakasteko liburuak (ez soilki aberriko, iaiotherriko thematei buruz). Aberriari buruzko ikhertze original handi-goak, Periodiko goitikoak. Radioko mintzoaldi importantak.

5. Iakintza alhor differentetako ikhertze original handi-goak. Herriko eta Statuaren skribuetan erabilten. Periodiko osoak herriko hizkuntzaz. *Hizkuntza baten maila gorenaren ardiesteko kondizino sine qua non unifikatu orthographia eta izkiriatu forma unifikatua da* (5).

Herri batzuenzat, heien kultur-hastapenetan Bilbliaren itzulpena izaiten dateke, kateximaren itzulpena ere; bai eta erleginozko literatura ere. Halarik ere hizkuntza batek egiazko kultur hizkuntza izan dadintzat, themako literatur laikoa eduki behar du.

Egileak erraiten duen bezala edozein gauzaren izkiriitzearen bidez ezta hizkuntza bat kultur bide bilhakutzen. Soilik hirugarren mailatik hizkuntza bat skribu-hizkuntza izenezta dezakegu.

Hizkuntza baten egokera soziologikoaren iujatzeko themako prosa importantena da; haur da poetikoa ezten prosa zein mugataraino hedatu den iakitea. Haur behar bada irakurle laiko bati barhana iruditzen zaikoe, zeren batez ere poetek hizkuntzaren obra ezagutuena egin baititute, iakintzalariek, tekhnikalariek eta jurlanistek baino gehiago.

Berhain, poetek askotan hizkuntza berezia dagite, soilik heientzat

expressatzeko bidea datekeien mintzoara. Orduan herriaren massa ezta utkitzen. Landu gaberik legoken hizkuntza batetaz gauetarik goizetarat poeta handi batek izkiria dezake. Okzitaniako hizkuntzan Mistralek egin zuen anzora. Halarik ere, hizkuntza hunen egokera goratzeko importantagoa dateke *makinen konstruksioari* buruzko traktatu baten publikatzea, hunen egiteko egileak terminologi exaktu bat ukhan behar lukelako, eta huntaz gainera hunelako traktatu bat beuren ama hizkuntzaz irakur eta huler lezakeien publiko batek egon behar duke. Beraz Okzitaniako hizkuntza Kultur modernuaren hizkuntza bat denz iujatzeko Mistralek baino gehiago teknikalariak eta naturiakintzalariek egin dezakete. Gathalanaraz ezta orain dano Mistral bezalako poetarik izan, bainan gathalanara Okzitaniako hizkuntza baino gehiago themako prosaz erabilirik izan baita, gathalanara Okzitaniako hizkuntza baino askozaz gehiago kultur-hizkuntza bilhakatu da, zeren eta Kathalufiako herriaren mueta guztiek beuren hizkuntza egunoroko arazoetan baitarabilte. Herriko massek eztitute poesiak eta epoak irakurten, are gutiago izkiriatzen. Gehienek periodikoen artikuluak, parropiaren orstoak, guthunak, fakturak eta iakintzazko prosa (odontologiari buruz, metal-konstruksioei buruz edo ta hegaztinen hazidurari buruz) izkiriatzen eta irakurten baititute.

Beraz hizkuntzaren bizia iraun-arazteko gathazkan gurenda beretzakoturen du, hizkuntzari datxizkion alhor haukietan garailari izanen denak. Mistral bezalako agerte batek soilik importantzia du, ama-hizkuntzaren prestijea Atzerriko Unibersitateetan goratzekotz (6).

Halakotz, hizkuntzaren biziari buruzko arazoen ikhertzeko eta hizkuntza batek, kultur bidearen izaiteko ukhan behar duen evoluzioaren iujatzeko batez ere, soziologuak erraiten deraukuna konsideratu behar dugu, eta ez poesiaren maitaleak dioskuna. Gure mendeetan lehen baino gehiago, poeten influentziaren obuak hoin handiak ezpaitira, eta hekiek Fatuaren bidean direkzinoa alda ezpaitzakete. Hizkuntzaren movimendu batek, beure tendentzien erroak spiritu irrazionalean baldin ba ditu, poesian batez ere ekhinen du, bainan movimendu batek beure erroak, indar soziologikoetan eta razionaletan baldin ukhan baditza, batez ere themako prosan ekhinen du.

Hunela Heinz Klossek bere liburuaren Aitzin-Solhasean hizkuntzak kultur bide izaiteko bethe behar diren baldintzak eta nola bethetzen diren komentatzen du.

Hemen emaiten diren irakaspenetarik geuk ere euskararentzat konsequentzak athera baldin baditzagu, euskara egungo egunotan Kultur bidea bilhaka ledin, helburu hunen ardiestea gure io-muga baita, errana konsideratu behar dugu.

Guduaren aitzinean euskara orain baino beheitiago zegoen. Azkenengo demporaetan euskararen egokera soziologikoa hobetu da. Au-

txinako demporetan gure hizkuntzaren kultur-khabia izan zen Lapurdin euskara erori da, euskara Kontinenteko Euskalherrian soilik bigarren mailan baitago. Phenagarria eta deithoragarria da egun Lapurdin ikhusten den "baxenabarren" ekhitea. Haukiek beuren iakturiaren ezaz hemen euskarak zedukan kultur-bidearen izaiteko presutasuna eta kultur hizkuntzaren batasuna ezerezten baititute. Hunela bada iakiteke euskararen hortzaile bilhakatzen dira baxenabar dialektuaren iarraitzaleak (gira-zirazaleak alegia) Peninsulako euskaldunak maila bat edo bi gorago daudez. Haukiek euskara kultur-ara-zoetan erabilten baitute, izkiriartzen diren thematen hedagoa askozaz ioritu baita, euskaraz ikhertze originalak agerten baitira, euskara askotan guthunetan erabilten baita. Radioan ere bada euskaraz entzuten, eta hau gehiago izaiten ezpada, egokera hunen kausa iakinikako diffikultateak dira, errua eztago euskalzaleen aldean. Orain badira agerten euskarari buruz eta batez ere euskaraz kultur thematak dakhartzaten revistak.

* * *

Heinz Klossek erraiten duen bezala hizkuntza bat kultur bide ledin bilhaka, batez ere, alemanoaraz "Zweckprosa", haur da themagatik izkiriartzen den prosan erabili behar da. Bainan themako prosan munduko Kulturak reklamatzan dituen kondizinoak bethe behar dira. Haur da "iakintzako thema" *ethorriaz* irakurri behar da (7). Hunen egiteko izkiriatu forma unifikatua eduki behar dugu, bai ta iakintzako termin teknikoak Kultur hizkuntza nabusienetan erabilten diren forman ere. Bertzenaz, behar den konvencionalismua ezta ardiesten. Themako prosa irakurten dugunean themagatik, thema interessatzen zaikun motivuagatik irakurri behar dugu. Bertzenaz themagatik irakurten eztagu, *hizkuntzagatik* baizen. Euskaraz ere edozein eskolatu darabiltzan hitz teknikoak erabili behar ditugu.

Hortakotz irakurten dugunean gure thema ethentzeke, interrupzi-noen gabe irakurri behar dugu. Gure irakurtearen harian haburikatzen dugun guztietan themaren kontra ekhiten dugu eta zio hunengatik ere euskararen interesen kontrako stylu batetaz izkiriatu dugu. Hunelako faltak hitzen mordoilokada baino zithalagoa da. Mordoilo-zko hizkuntza Aisthetikaren eza izan daiteke, bainan garbiren-garbiz izkiriatu den textu bat euskaraz behar lizatekeien bezala, haur da hizkuntza bizi-az, hizkuntza praktiko bat bezala trakta ezpadeza, hunelako textua mordoilokada zithalena baino zithalagoa lizateke, euskararen irakurtea aurrephai erhaile batetaz bethetzen baitu, euskararen irakurtea nakhaizgarria, okhaztagarria egiten baitu. Eta haur gure subkonszientzian bethi da, ethorria ezten irakurteaz, berez erraza

ezten enthelegatzeaz, hizkuntzaren formagatik permantzak egin behar ditugun guztietan. Themako prosa ezta literatur ederraren hizkuntza. Huntan hizkuntza motivua izan liteke. Themako prosan, hizkuntza bide eta moien bat dela ahantzi behar eztingu.

Rhetorikako prosa ederra, erudizioez bethea, teknikako hitzez bethea izan ditekete, baina gisa hauk bethi io-mugaren zerbitzuan egonen dirade. Hargatik euskarazko prosan Lapurdiko Rhetoren obua egungo euskaldunontzat hoin importanta da. Atxular eta bere leinuko izkiriataileek, bethi ardietsi nahi zuten aren zerbitzuan, hizkuntza baitzuten, edonoiz edonun Rhetor on batek duen araura. Atxularren eta bere Obuko izkiriataileen eskuetan euskara arma zorrotza, erreminta praktiko bat bilhakatu zen, ameslarien eskuetan erreminta amostutzen da (8). Rhetorek (adibidez, Heladako Rhetor handiek: Demosthenek Lysiak, Isokratek) ba zekiten hizkuntza lantzen eta gerthutzen: hekiek beuren hizkuntza Politikaren arma egin zuten egiazko bortxa. Poeta batek bere barneko arrangurak lehenik bere buruarentzat izkiriartzen ditu, Philologu batek gehienetan izkuntza motivua delarik izkiriartzen du, baina ez Rhetor batek: Rhetor bat publiko bati mintzo izaiten zaio, rhetorak bere hitzez entzulea konventzutu nahi du. Hunen egiteko eztezake behaztopoz izkiria, hulertzearen momentaneitatea ezina egiten dituten terminak ezin erabil ditzake, bere hizkuntzak zuzentki eta arthezki Adimendurat ioan behar du, hizkuntzaren bidez bere io-muga ardietsi nahi baitu. Rhetorikako stylu guztiak erabili behar ditu, Rhetorikako tropon guztiak kombinatu, batzuetan subkonszientziari mintzo izanen zaieko, bertze batzuetan erudizioenaren bidez bere mintzoa aphainduko duke.

Euskal Rhetorikaren maisua Atxular izanik da... Halakotz, euskaldun izkiriataile berrien leinuak Atxular gidaritzat onhartu du. Atxularrek beure styluaz, beure prosaz, orain Euskalherriak behar duen hizkuntzazko arma euskaldun literatuen eskuan ibenten baitu, haren hizkuntzak euskaldungoaren sua piztaraz baitezake.

Atxularrek beure epokhako problematak traktatzen zituen. Euskara epokha hunen problemat bizien arma bezala zerabilen. Egun behar bada tematika aldatu da, baina Atxularren tradizio bizia gurea dateke.

Literaturaren textu romantiko batetan hizkuntza garbia izan liteke baina hunelako hizkuntzaz, themako hizkuntzaren requisituak nehoiz ere ezkenitza bethe. Bertzenaz Mystikako textu batetan edo textu lyriko batetan, Razoin hotzaren hitzak ez titzazkegu erabil; nola teknikako hitzak baitira. Baina iakintzazko textu bat hitz populariez izkiriartzea Lyrika eta Tekhnika nahastekatzea lizateke. Batetan zilhegi datekeiena bertzean debekaturik da, stylu batetan beharrekoa dena, bertze erduan kaltegarri dateke.

Bizi modernuan iakintzako prosa, themako prosa baino importantzia handiagokoa baita, ezin onhar dezakegu themako prosan literatur hizkuntza garbiaren konbentzionalismuak sar ditezela. Themako prosaren requisituak ez dira elhe ederrarenak.

Ederraren-ederrez themako prosa hulertezina egiten duenak themari kalte handia egiten derauko, bai eta hizkuntzaren biziari ere. Iakintzako testu batetan ezin ditzakegu erabil sentzu berriaz onhararazi nahi genituzkeien hitzak. Iakintzako themat bat irakurten dugunean, modalitate berriaz erabilten den hitz zahar batetan, autoreak zer erran nahi zuen, behar den baino gehiagotan, gure buruari galde egin behar deraukogunean, iakintzaren themaren kondizinoak eta requisituak ez zitugu bethetzén.

* * *

Egun euskararen biziaren problemat huntaz gure mintzoararen ethorkizuna uzkaldata baitago, ongi legoke problemat hunen zenbait aspektu konsideratzea. Edo euskara egunoroko arazoetan erabilteko erreminta praktiko bat bilhakaturen da, edo bilhakatzeko haur ardiets ezpadezagu, nola ere nahi, euskara hilen da. Adibidea gure begien aitzinean dago. Garbiren garbiz erreminta zigurra, zorrotza eta praktiko bat bilhakatu ezten irlandara, irlandarrei hiltzen zaie, gehiago eta are hiltzenago. Irlandako aberzaleak angloaraz mintzo baitira bethi. Gure herrian, euskalzalerik asko euskara garbi-garbi-garbia ukhan nahi baitute, bethi erdaraz mintzo ziren eta hunla euskararen ehortzaille bilhakatu ziren. Euskaraz dakien euskalzalea, euskaraz mintza ezpadadi, ezta euskaldun bat, traidore bat baizen, eta beuren seme-alhabei beren arbasoen hizkuntza irakasten ezterauen euskaltzalea soilik hitzontzi eta euskaldun tzarra da, traidore zithalena baizen ezta.

* * *

Geuk euskararen, iakintzako vokabulariak bertze hizkuntzetan gainti hartu ditugunez geroz, bai eta hartu ere egin behar ditugunez gero, iakintzak behar duen terminologi zigurren anzora onhetsi behar ditugu. Beraz euskararen ere iakintzako terminologiak kanpoko aspektua konservatu behar du. Iakintzako hitzak, izkiriatu-hizkuntzaren hitzak baitira, hauietan oguzkera hoin important ezta. Importantena da ikhupenaren mementuan zer erran nahi duten iakitea.

Beraz gezurrezkoa da hitz haurk pronunziatze populariaren anzora aldatzea. Hitz hauietan egin ditzazkegun aldakuntzak ttipi-ttipiak bethi izanen dira. Hortakotz grekaratiko eta latinetikoko hitzetan beuren kanpoko aspektua konservatu behar dugu. Hekietan bertze pro-

blema oguzkerarena dateke. Hitz hauietan ezta questino, nola izkiriatu behar diren, nola oguzi behar diren baizen, zeren-eta hitz hauk skribuaren formaren araura pronunziatu behar baitira.

Euskara kulturduntzeko —erran dugunez— kondizino sine qua non bat bethe behar dugu, zeina Heinz Klossek dioenez izkiriatu formaren batasuna baita. Die Erreichung der höheren Entfaltungsstufen, hangt naturgemäss z.T. davon ab, ob es eine einheitliche Rechtschreibung und eine einheitliche Form der Schriftsprache gibt.

Evoluzinoaren forma gorenen ardiesteko kondizinoak orthographi unifikatua eta izkiriatu hizkuntzaren forma unifikatua dira.

Orain arte ioan garen bidean gainti geroagoz eta gehiago ekhin badezagu, haur da, guztiok euskararen dialektu eta dialektutuz izkiriatzen, euskara nehoiz ere ezta Kultur-bide bilhakaturen. Hizkuntza batek Kultur-bide izaitzekotz, forma unifikatua behar du ukhan. Bainan hunelako forma ezta artifizialki egiten. Hunelako forma tradizinoaren bidez egiten baita. Euskaraz ere tradizinoaren bidez kreatzen da, eta tradizino haur Atxularren Zaro eta Leinukoa da haur da lapurdara klassikoa. Tradizino euskara hunen eretzean bertze forma guztiak, soilik dialektuak dira. Euskara klassikoa, lapurdara klassikoa da, haur da behar dugun forma. Erranik bezala, literatur hizkuntza bat mendeen iariatzean formatzen da. Zorionez lapurdara klassikoak, zenbait aspektutan zahartasunaren nobilitatea du, haur da, hizkuntza zuhurra bilhakatu da, ezta egunoroko iente kaskarren forma, Haur guztiz importante da; *literatur-hizkuntza batek, dialektu bat baino gehiago izan behar baitu.*

Oraiko baxenabarrara zaleen tendentzia zorigaiztoko eta ondikozko ekhintza dela erran dezakegu zeren-eta Kontinenteko Euskalherrian hunelako populisten ekhinzaz antxinadaniko zethorren literatur hizkuntzaren tradizino a hautsi izan baita. Orain soilik lapurdara klassikoa izkiriatzaile hoberenak izkiriatzen dute.

Lapurdara klassikoak euskaldun guztientzako atxikidura-hizkuntza bezala onhartzeko mintzoara batek behar dituen kharakteristika guztiak ditu:

- 1) Hizkuntza haur Tradizinoako forma literaria da.
- 2) Mintzoara hau Euskalherriko bi zathietan erabilten da.
- 3) Hizkuntza hunek tradizinoaren bide aspektu nobleagoa hartu du, denporaren bidez noblizatua izanik da eta behar den prestijea du.
- 4) Hizkuntzaren forma haur Euskalherriko eskualde guztietan huretzen da, euskara haur Euskalherriko dialektu guztien synthesis bat bailizen.
- 5) Hizkuntza huntaz izkiriatu zutenek —behar bada, intuitivukiro— behar zatekeien gogoaren amplitudinez izkiriatu zuten. Mintzoara huntaz izkiriatu zutenek beuren sortherriaren bornuez hara-

go so egin zezaketen: etziren beraz bornaturik sudurraren aitzi-
nean zeduzkaten mendiak etziren gizon hauientzat behaztopo.
Euskalherriaren interesea beuren haraneko bornuez harantz
ioaiten zela ikhus zezaketen.

- 6) Forma haur, euskararen ikhus-puntutik, forma universala izanik da.
- 7) Hizkuntza haur bere iaiozta danik perfekta izanik da. Leizarra-garen lumatik perfekzinoz iltkhi zen.
- 8) Lapurdara klassikoan bertze formetan baino gehiago Rhetorikazko styluak formatu izanik dira.

Lapurdara klassikoaren erkatzean bertze dialektu guztiak nanu ttipiak baizen eztira... halabainan hizkara klassiko haur euskaldun guztien forma literaria bezala onhartzekotz bethetzen diren baldintzen aiphatzea neurrigabeko lizateke, bainan bai ba dugu bertze motibu bat aiphaturen, ezen motivu haur berez eta bakharrrik, bertze motivurik ezpalegoen ere, euskararen forma haur euskaldun guztientzako forma literaria bezala onhartzeko determinanta behar bailuke izan. Euskaldun guztiok gure herriaren batasunagatik guztiontzako forma literari bat ukhan behar dugu, eta ez bata prantsez-euskaldunentzat eta bertzea español-euskaldunentzat.

Halabaina, lapurdara literatur euskara bezala onhartzea ezta izanen nehoiz ere dialektuen ezabatzea. Dialektuak iraunarazteko, guztiontzako atxikidura behar dugu, themat batzu orain-arte bezala dialektuetan erabiliren ditugu, bainan lapurdara klassikoa orain-arte español eta frantsez erdaraz erabili ditugun thematentzat izanen da, haur da dialektuen anaie handiagoa izaiteko. Batez ere prestijea handiagotzekotz kultur-symbol euskalduna izan dadintzat.

Euskararen batasuna ezta styluen unifikatzerik izanen, haur edonun eta edonoiz kontrakoa dateke. Axular arthamendatzea soilik bi puntu haukietan izanen da:

- 1) Lapurdara klassikoaren morfologia, batez ere, verbuaren konjugazinoak.
- 2) Lapurdara klassikoaren orthographia, batez ere *h* konsonantean. Axular obuko izkiriatzailleetan differentziak legozkenetan, Atxular gidaritzat.

Iakina bezala lapurdararen verbua, gipuzkararen verbua baino errazagoa da, bai eta regularagoa ere. Lapurdara klassikoaren verbuzko formak edonun hulertzen dira, Bizkaian, Gipuzkoan, Nafarroan eta Zuberoan.

STYLUA

Euskara onaren kriteriona Atxular izan dadila, arthamendatzen dugularik batez ere, haren verbuzko formetan pentsatzen dugu, zeinek

tinkotasun ezin-hobetuzkoak finkaturik baitagoz. Izkiriataile hunek orain ere hizkalki guztietan daduzkagun ioritasuna eta aberastasuna bere hizkuntzan biltzen ditu. Halarik ere ongi legoke Altubetar Seber eta bertze grammatikalariek euskararen syntaxiari buruz egin dituzten ikhertzeak ongi studiatzea. Dударik gabe Altubetarrek baino lehen nehorke ere etzuen euskararen syntaxia hoin arthoski ta sakonki ikhertu. Halarik ere bertze ikhertze bat egin behar genuke, literatur euskararen ereduak ikhertzea, zeren-eta Altubetarrek batez ere mintzatu euskararen ereduak aztertu baitzituen, nahiz eta grammatikalari hunek, Axularrek eta bere leinuko izkiriatazalleek anaphorikoez egin duten (eta orain ipharraldeko Euskalherrian egiten ere den) emplegua aztertu behar lizateke. Dударik gabe euskarazko prosan eta bertsuan eztagu euskarazko styluen aberastasunean ezein ere murrizterik egiteko eskubiderik. Halakotz ongi da, bertze dialektuetan erabilten diren formen ikhertzea eta heien bidez literatur euskara aberastea. Haur ere Atxularren sentzuaren tradizinoan bailegoke, zeren-eta Atxularrek berak ere dialektu guztien aberastasuna bere mintzoaran erabili nahi baitzuen. Euskararen literatur osoan, gure aitzinean egon diren izkiriatazileen styluak ikasi behar ditugu, edonun eta edonoiz eskolaren bidez gerthatzen den araura.

EUSKAL-LITERATURAREN TENDENTZIAK

Euskararen egokera soziologikoari buruz, orain arte eduki ukhan ditugun izkiriatazileak hunala xehaka genitzake.

A) POPULISTAK

Haukiek soilik euskara iente kaskarraren eta herri xehearen problematen traktatzekotz erabili nahi lukete. Bertze gai guztiei buruz erdaraz mintzo dira eta hainek ere erdaraz izkiriatazen ditute. Euskara baserritiar hunen partisanen skribuetan soilik bermailaren thematak traktaturik ikhusiren ditugu. Heientzat dialektu eta dialektuttoak aski dirade eta, batez ere, euskara lokalismuz bethea maite dute. Tendentzia hunen iarraitzaleentzat euskara bakharrik bigarren ordinarako hizkuntza da. Prestijeko gauzak bethi erdaraz erabiliren ditute. Hunen araura konsequentak dirade eta heien artean kulturdunak direla erakhusteko bethi erdaraz mintzo dira. Hunelako tendentzia eta egokera adibidez, bertze exempluetan, Ipharraldeko Euskalherriko aphezen ekhintza lizateke. Aphez haukiek herriari bethi euskaraz predikatzen deraukote, bainan heien artean erdaraz baizen eztira mintzatzen. Bainan herriak exemplu tzarra ikhusten du... eta aphezen exemplu tzarra dela kausa, erdaraz ere mintzatzeko iaidura hartzen dute. Dударik

gabe hemen aphezen kulpa handia dugu. Batzuetan tendentzia huntan ezta kiguru zer den kausa eta zer den ondorioa... ez tira euskaraz kultur-arazoei buruz mintzatzen, praktikarik ezpaitute... eta nehoiz ere praktikarik ez tute ukhanen, zeren eta euskaraz kultur thematei buruz mintzo ezpaitira. Tendentzia haukietan garbizaleak eta herrizaleak ukhan ditugu. Aldra hunen euskalzaleentzat euskararen izkiriatu formaren batasuna ezta problematik, zeren heien kultur bidea erdara baita. Euskararen egokera soziologikoa goititu nahi dutenak zathi differentetan ezar ditzakegu.

PURISTAK a) *Bizkaitarrismua.*

Tendentzia hunen iarraitzaleak batez ere Bizkaiän egonik baitziren hitz huntaz izenezta ditzakegula uste dut. Hoiek euskararen lexikonetik erdaratik hitz guztiak khendu nahi zituten ethor berriak eta mende asko danik euskarän bizi izaiten direnak, alemanoek "Lehnwörter" izeneztatu ditutenak, Euskararen lexikona %60-75 erdaratikoa denaz gero, hunelako iraintzea ezina dela erraz ikhus diteke. Tendentzia hoin extremista etzuen ezein ere hizkuntzak ezagutu nehun ere. Arbuaiaten zituten hitzen ordez beren galdako hitz berriak sartarazten zituten. Halarik ere, tendentzia huntan kriteriona negativua baizen ezpaitzen, haur de anti-gaztelania baizen ezpaitzen, euskarazko hitzak heinek erdararekin zeduzkaten ahantzaren bidez interpretatzen ziren. Hunen araura batzuetan euskarazko hitzak ere arbuiaitu zituten, zeren eta erdarazko hitz batetaz ahantza baitzuen. Exempli gratia, "ordu" hitzak erdarazko "hora" hitzaz bi letra kommunkzi baititu mesprezatu zuten eta haren ordez bertze bat inventatu zuten. Geroz berek inventatu Logikaren bidez euskararen verbua. Prokusteren ohean sartu zuten, eta euskararen verbuaren forma berriak asmatu zituten.

Hizkuntza berri haur, zeina Bidebarrietako euzkera izeneztatua izanik zen esperanto baino guttiago zen, eta hizkuntza artifizial haur baino artifizialago.

b) *Garbizaleak.*

Haien aburuz euskaraz themat gutiak soilki euskarazko hitzez traktatu behar lirateke. Hitz hauk Azkuek bere hiztegian bildu zituen hitzak ziren. Azkueren hitzak aski etzirenean, hitz zaharrei zentzu berria emaiten zeraueten, bertze batzuetan Azkuen hiztegiiko hitzez eta euskarazko affixuez hitz berriak eratzen zituzten. Tendentzia hunen iarraitzaleak, Klossek irakhutsi zuenez hirurgarren mailan dagoz. Hekiekin thematak hedatzen hasi ziren. Maila huntan ere iakintzazko

Grammatikak eta Hiztegiak ageri izan dirade. Batzuetan laugarren mailaraino heltzen dirade. Tendentzia hunek beure muga hersiak ditu. Hunelako hizkuntza soilik egokia baita, literatur soilaren thematen traktatzekotz eta prosa poetikoarentzat. Iakintza eta bizi modernuaren konzeptu universaleentzat hunelako bidean gainti ezin hel gaitzekelakotz Klossek erakhutsi zuenez tendentzia hunen iarraitzaleek heien ekhinzaren erroak subkonszientzia irrazionalean baititute. Movimendu haur romantikoen movimendua lizateke. Tendentzia hunen izkiriataileak laugarren mailako thematez hasi ziren, bainan hunen egiteko hizkuntza garbiak eztu valorik. Hizkuntza garbia prosa poetikoaren arma izan daiteke. Iakintzaren konzeptuak iakin-arazteko hitz zaharren erran-nahia hedatu behar denean irakurlearen atenzinoa behar lizatekeien baino gehiago reklamutzen da, eta heien signifikanza aldatu behar dugunean irakurtearen haria ebakiten dugu. Haur behin edo bertzetan pausa bezala egin liteke, bainan iakintza modernuaren erakhustekotz orrialde batetan hoge bider hunelako geldigunen egiterat irakurlea bortxatzen dugunean, irakurtea gorhaingarria bilhakutzen da. Hunelako haburikatzeak themagatik irakurri nahi genituzken skribuetan ezin egin ditzazkegu. Geroz mundu guztiko hizkuntzak iakintzako vokabulariak forma berdinean dituzte, euskara bertzela egin bagenez soilik euskara kausa dela-ta, euskal irakurleak terminologi guztiak bietan ikasi behar lituzke, haur ere ezina da, nehork ere praktikan eginen ezpaitu. Eta hunla izanaz geroz euskarak galtzen du... zeren Kultura buruzagituko baita.

KLASSIKOAK

Euskara klasikoaren iarraitzaleekin gure hizkuntza Euskalherriaren egiazko kultur-hizkuntza bilhakaturen zatekan. Maila huntan unifikatu forma literaria bilhatzen da. Tendentzia huntan Atxular gidaria dateke. Atxularrek, naparra izanik, lapurdaraz izkiriatu baitzuen, ioandako mendeetako gizon ikasi baitzen eta mugaren alde bien kultura zeukan Atxular euskaldun guztien arteko batasuna signifikatzerela heldu da. Euskararen egokera historikoa hunla bilhakatu dateke.

1. THESIS GABEKO EGOKERA

Statu huntan bakharrrik dialektuez eta dialektuttoez izkiriatzen zen, hizkuntzaren problema eztago. Hunelako izkiriataileentzat hizkuntza ezta herriaren symbola.

2. THESIA

Thesiaz, aberriaren importantzia sortzen da. Halabainan hizkuntza kanpoko influentzen kontra affirmatzeko gogoz, hizkuntzaren etsaien aurkha personalitatea erakusteko, thesisko izkiriatzaileek aspektu garbiaren bilhatu nahi ukhan zuten.

3. ANTITHESIA

Hizkuntza garbia esperanto bezalako jargon bat bilhakatu dela ikusten zen. Bizkitartean iakintzako hiztegiak eta grammatikak eratu ziren. Herri hizkuntza biziaren altxorrerat itzultzen dira euskalzaleak eta soilik herri-hizkuntzatik dathorркеien hitzez izkiriatu nahi lukete. Halarik ere, tendentzia hunen iarraitzaleek themat goitikoak trakta-tzen saiatu dutenetan, herriko hizkuntzaren bidez hori ezin zela era- khutsi dute.

4. SYNTHESIA

Hizkuntza themat goitikoentzat gerthurik egonez geroz eta thesian eta antithesian zegoen deffensivatik egon-ondoren, synthesian eus- kara plazarat iltkhitzen da. Euskara, bere prestijea goititu ba du eta euskaldungoaren symbola, egiazko sostengua dela ikhusi denetik, klas- sikoek hizkuntza egiazko hulerbidea bezala erabilten dute.

Federico KRUTWIG.

OHARRAK

(1) Die unentwickelten Sprachgemeinschaften bewegt nun angesichts dieser Entwicklung nun nicht nur eine irrationale Sorge um ihr Seelengut, sondern auch die höchstrationale Ueberlegung, ob z.B. die neue Volksschulbildung ihnen und ihren Kindern nicht nur dann voll und ganz zugute komme, wenn sie ihnen in ihrer eigenen Sprache vermittelt werde. Eine ausschliessliche Pflege einer fremden Sprache bedeute eine undemokratische soziale Benachteiligung der Angehörigen der kleinen Sprachge- meinschaft. (D.E.N.G.K. 10.)

(2) Man kann jedenfalls nicht einfach alle Spracherneuerungs-Bewegungen als Nationalismus abstempeln und dann erklären, Nationalismus sei bekanntlich schlecht- hin verwerflich. Der nationalistische Gedanke enthält genau wie der sozialistische einen berechtigten Kern; schlimm ist nur, ez zum Nationalfanatismus ausartet. Wenn heute eine grosse Nation dem in ihrer Mitte eingebetteten Kleinvolk die Pflege der eigenen Sprache je weigert, dann überspitzen nicht die Sprecher des Klein- volkes die nationale Idee, weil sie für ihre Sprachgenossen der Grundschulunterricht in der Muttersprache fordern, sondern die Regierung des Grossvolkes, wenn und weil sie die Forderung abschlägt. (D.E.N.G.K. 12.)

(3) Die grosse Masse der übrigen Menschen aber, die gebildeten kaum weniger als die einfachen Volksschichten, empfinden diese auf den mündlichen Gebrauch beschränkten, aus den Schulen verbannten Idiome als "blosse" Mundarten, m.a.W.: der Linguist bezeichnet Okzitanisch als Sprache, aber der Laie, ob Rechtsanwalt oder Bauer, als Mundart. Wird eine solche Sprache allmählich wieder im Druck verwendet und in den Schulen gelernt, wird sie zur Ausbausprache, so passt sich das Urteil der breiten Oeffentlichkeit allmählich dem der Linguisten wieder an. (Ibidem 18.)

(4) Stufenfolge des Ausbaus eines Idioms zur Kultursprache. Die soziologische Stellung eines Idioms kann vornehmlich auf folgenden sechs Wegen gestärkt werden.

1. Vermehrung der schriftlichen Anwendung und Anwendungsgebieten.
2. Vermehrung der mündlichen Anwendungsgebieten (z. B. Vorträge, Predigt).
3. Ausbreitung im Rundfunk und Fernsehen.
4. Vereinheitlichung der Rechtschreibung.
5. Vereinheitlichung der schriftlichen und u.U. später auch der mündlichen Sprachform.
6. Verstärkte Pflege in Verbänden (bes. auch solchen, die nicht um der Sprache willen gegründet wurden) und in der Jugendarbeit, vornehmlich an den Schulen.

Von diesen sechs Möglichkeiten ist naturgemäss die erste am wichtigsten.

(Ibidem 24/25.)

(5) Vorstufe (Jargonstufe).

Unverwickelte Komik (Scherze, humoristische "Zeitungsbriefe")—daneben Niederschriften von Volksliedern, Kinderliedern, Rätseln, Sprichwörtern usf.

Erste Stufe.

Lyrik. Humoristische Dichtung aller Gattungen (auch Lustspiel und humoristische Erzählungen), Dialoge in Roman und Rundfunk.

Zweite Stufe.

Schauspiel; ernsthafte Prosaerzählungen (nicht bloss Dialogteile); Verserzählung, Idylle, und Epos. Zeitschriftenaufsätze als Beginn des Zweckschrifttums.

Dritte Stufe.

Ausbau des Zweckschrifttums: Lehrbücher und kleinere Originalforschungen (Aufsätze) auf dem Gebiet der Heimatkunde. Volkstümliche Zeitschriften—Beginnende Verwendung in Briefen. Volkstümliche Rundfunkvorträge. Wissenschaftliche Grammatiken und Wörterbücher.

Vierte Stufe.

Lehrbücher über alle mögliche Wissensgebiete (als nicht nur über Heimatkunde). Grössere Originalforschungen zur Heimatkunde. Anspruchsvolle Zeitschriften. Gewichtige Rundfunkvorträge.

Fünfte Stufe:

Grössere Originalforschungen auf den verschiedensten Wissensgebieten, Verwendung in amtlichen Schriftstücken der Gemeinden, des Staates usw. Verwendung im Wirtschaftsleben. Ganze Zeitungen in der Stammsprache.

(Die Erreichung der höheren Entfaltungsstufen hängt naturgemäss z.T. davon ab, ob es einheitliche Rechtschreibung und eine einheitliche Form der Schriftsprache gibt.)

(6) Aus unserer Stufenfolge erhellt, dass für den soziologischen Rang einer Sprache die Dichtung weniger wichtig ist als das Zweckschrifttum (oder Sachschrifttum), d.h. als die nicht dichterische Prosa. Das erscheint zunächst befremdlich, denn in den meisten Fällen werden ja die grössten schöpferischen Einzelleistungen in einer Sprache von den Dichtern vollbracht und nicht von den Gelehrten, Techni-

kern und Journalisten. Aber gerade die Dichter können sich eine für niemanden sonst verbindliche Sprache zum eigenen Gebrauch schaffen, ohne dass die breite Masse der Sprecher davon berührt wird. In einer literarisch völlig vernachlässigten Sprache kann fast über die Nacht ein grosser Dichter erstehen, der in ihr Werke von Weltruf schafft, wie dies Mistral in okzitanischer Sprache tat. Aber damit einer eine okzitanischer Werk zur Maschinenbaukunde oder zur Botanik schreiben (und veröffentlichen) könnte, müsste er eine feste Fachterminologie oder mindestens Ansätze dazu vorfinden und ferner eine Leserschaft, die derartige Werke in ihrer Muttersprache zu lesen gewohnt oder mindestens bereit ist. Dass der Nobelpreisträger Mistral auf Okzitanisch schrieb, bewies und bewirkte für den Reifegrad des Okzitanischen als moderne Kultursprache weniger als es die Schriften einiger Naturwissenschaftler oder Techniker täten. Die Katalanen haben keinen Mistral hervorgebracht, aber ihre Sprache hat sich im Zweckschrifttum ungleich mehr durchgesetzt als das Okzitanische—und ist damit ungleich mehr wieder zur Schriftsprache des Volkes geworden. Denn die breiten Volksmassen aller Stände schreiben ja keine Epen und Gedichte und, ach, es ist auch eine Minderheit, die Epen und Gedichte liest. Die meisten lesen nur Zeitungsartikel, Kirchenblätter, Briefen, Rechnungen und Fachaufsätze in den Sondernorganen für Geflügelzüchter, Zahnärzte und Hochbautechniker. Und gar schreiben tun die meisten überhaupt nur Briefe, Notizzettel für ihre alltäglichen Aufgaben, und wenn es hoch kommt Rechnungen, oder "Eingesandts" an eine Zeitung. Deshalb hat im Daseinskampf der Sprachen diejenige gewonnen, die eben diesen Bereich erobert. Eine Erscheinung wie Mistral hat, so merkwürdig das klingt, mehr Bedeutung dafür, ob seine Sprache an ausländischen Universitäten wieder besser beachtet wird, als dafür, ob sie wieder zur Schriftsprache des kleinen Mannes seiner eigenen Spachgemeinschaft wird.

(7) Euskaraz guduaren aitzinen zenbait liburu iakintzari buruz izkiriatu izan ziren, Hauietan bata Pisia ta bertzea Kimia iakintzei buruz. Bergain liburu hauiek "iakintzazko" prosa direla eztezakegu erran, liburu haukien prosak iakintzazko prosaren baldintzak bethetzen ezpaizuen. Edonork liburu hauk hizkuntza motivu zela izkiriaturik daudela ikhus diru. Liburu hauk egiazko iakintzalari batek izkiriatu etzituela erraz ikhusten da. Hunelako liburuen bidez etzen iakintza aitzinatzen, etziren iakintza batetan enthelegatzekotz bethetu behar ziren kondizinoak ere bethetzen.

(8) Euskalherrian garbizaleen maniagatik, bethi euskarazko textuak axalkiro ikhertzen dira. Liburu bati buruzko kritika izkiriatzeko edo erraiteko biderik errezena hartzen da. Hunen egiteko kriterion negativua hartzen da. Erdaratiko hitzik egon ezpatedi textua ona izanen da, bainan erdaratiko hitzak (beharrezkoak izanik ere) erabil ba ditez, textua tzarra da, gure kritikalarien aburuz. Hunela orain arte eduki ukhan dugun izkiriataile guztietatik hoberena ephaitu ohi zuten. Atxularren prosan latinetik hitzik ikhusten zuten, eta hauxe naikoa zitzaizen, Atxularren textua txarra lizela erraitekotz, bainan Atxularren textuaren alde positibuaq etzitzaketeen ikhus, itsutu baitzegozen. Geroz bertze kriterion bat "zeinismua" izanik da. Dena dela egun egunotan hunelako zeinismu bat erabilten ezpaita edo ta behintzat hunla egiten saiatzen baita, XVII mendeko izkiriataleen hizkuntza hungenatik ere tzartzat hartzen zen. Halarik ere pronomen galdeeginen bilhakatez haur bertze hizkuntzatan ere gerthatu zen. Bertze hizkuntzetan ere anaphorikoak hunla erabilten baitira.